

KOSTU EGITURA

Produktu bat sortu eta merkatuan saldu nahi denean honek izango dituen kostuak kontuan hartzea oso garrantzitsua da, izan ere, produktu baten kostuak zehazteak horren errentagarritasuna zehazten lagunduko digu, merkatuko prezioekin alderatuta; eta horrela, irabaziak mantentzea eta, azkenean, handitzea bermatu dezakegu.

Gure produktuaren, hau da, ilehorgailu isilaren kostu garrantzitsua webgunearen hostinga izango da, hain zuzen ere, ilehorgailua webgune honetan besterik ez salduko dugulako. Hasiera batetik hostinga hau ordainduko dugu, kostu finko eta zeharkako batean sortuz. Garrantzizko beste kostu bat ekoizpen lokala izango da, hau ere hasieratik ordainduko dugu, esaterako, kostu finko eta zeharkako batean sortuko dugu. Dena den, lokaleko argindarraren, gasaren eta energiaren kostuak aldakorak eta zeharkakoak izango dira; mundu mailako arazoak direla eta.

Bestetik, lehorgailua eraikitzeke materialen kostuak kontuan hartu behar dira ere. Material guztiek kostu aldakorra eta zeharkakoa izango dute, salmenta-bolumenaren arabera baitira; esaterako, gure produktuaren urteurrean prezioak jaitsi egingo dira, materialaren kostuekin batera. Azkenik, lokalean lehorgailuak ekoizten eta webgunea gidatzen ari diren langileen kostua finkoa eta zuzena izango da.

Prozedura honetan, eskala-ekonomikoa izango dugu, hau da, hasieratik lehorgailu asko ekoiztuko ditugu, eta horrela gure produktua ez da berez izan behar den garestia izango. Lehorgailu honek prezio nahiko eraginkorra izango du, 150 euro esaterako; produktu berezia izan, ekoizpen zaila eta mantsoa eduki, eta beste antzeko produktuengandik desberdina izan arren. Hau da, gure negozioa gure prezio-baxuenengatik funtzionatuko du bereziki, izan ere, publikoaren gehiengoarentzat eskuragarri dagoen produktu bat izatea nahiko garrantzitsua da, dena den, gure produktua segurua eta kalitate oso onekoa jarraituko du izaten.

